

B AUKERA

Jurado, M. C. (2009). Pina Bauschi egindako azken elkarrizketa, Txilen. *YA* aldizkaria.

2021eko urtarrilaren 20an berreskuratua: <https://www.danzaballet.com/ultima-entrevista-a-pina-bausch-en-chile/>

Pina Bauschi egindako azken elkarrizketa, Txilen

NEU NAIZ NIRE METODOA

Egun batean, bidegurutze batera iritsi nintzen: edo plan jakin bati jarraitzen nion, edo gauzei ustekabean ateratzen utzi eta gerora hasiko nintzen detaile guztiak lotzen. Bigarrenaren alde egin nuen. Kontua ez zen inprobisatzea, ez ziren bat-bateko txinpartak. Gehiago zen. Helburua zen behatutako milaka xehetasunak konektatzea, eta aukera ematea horri guztiari bere bidea egiteko.

Inork ez zekien, ezta nik neuk ere, jatorrizko ideia nora joango zen, zer bide egingo zuen hasierako klik horrek. Buruhausgarri bat muntatzea bezala izan zen hari gidari bat erabilita. Konturatu nintzen emaitza beti zela ezuste handia dantzariarentzat, baina batez ere niretzat.

Sorpresa lantzen genuen. Sorpresa dantzatzen genuen. Bai freskagarria! Denborarekin sistematizatzeko premia sentitu nuen. Eta metodo bat asmatu nuen: galdera bat planteatzea taldeari. Oraindik ere erabiltzen dugu teknika hori. Nik zer pentsatua ematen diet, pasio handia eta erreakzio biziak eragiten dizkien zerbait.

Dantzariak batzuetan hitzekin idazten dituzte erantzunak, beste batzuetan gorputzarekin edo mugimenduekin. Batzuetan keinu soil bat izaten da. Nik eskatzen diet desio bat interpretatzeko, aldarte bat, beldur bat. Edo asmatutako egoera bat irudikatu eta haren aurrean erreakzionatzeko. Galdetegi bat prestatzen dut, oharrak hartzen ditut, pauso berri bat erakusten diet. Horrela armatzen da nire materiala. Horrela eraikitzen dut koadro bakoitza, etxe bat eraikitzen arituko banintz bezala adreiluz edo zementuz. Ez da erraza: badakit zeren bila nabilen, baina ez dakit non aurkituko dudana. Nik sentitu egiten dut, baina ez dut ikusten; batzuetan garbi agertzen da, beste batzuetan nebulosa handia da. Eta halako batean, goizean jaiki —eguzkiarekin edo euriarekin— eta txinparta handi bat iristen da: badakit. Baina erantzun horrek galdera gehiago sortzen ditu. Eta zikloak aurrera darrai, gero eta biziago, batzuetan pixka bat desesperatuta... Azkenean, bildutako materialak forma hartzen du. Eta hasi egiten gara.

Batzuetan galdetu izan didate nola litekeen 40 edo 50 urteren ondoren erantzun guztien jabe ez izatea. Ez dakit, prozesuak beldurtu egiten nau oraindik, lehen aldian bezalaxe. Sekula ez dakit zer aterako den... Gauza bakarra hitzeman dezaket: saiatu egingo naizela behin eta berriro. Beti saiatzen ari naiz. Nire lana erabat inozentea da. Arraroa dirudi, ezta? Baina halaxe da: denok partekatu nahi dugun gauza sinplea. Behin dantzariak ideiarenean parte direnean, gainerako gaiak agertzen dira: eszenaratzea,



jantziak, argiak, musika. Zati hau funtsezkoa da, detaile txiki bakoitzak erabat alda dezakeelako obra. Batzuetan gauzak aldatzen ditut estreinaldiaren ondoren ere! Dantza zerbait bizia da eta. Eta musika funtsezkoa da. Bi pertsona dauzkat erabat emanak nire sormen lanetarako egokiak izan daitezkeen musika piezak biltzera eta artxibatzerara. Baina denok egiten ditugu ekarpenak: dantzariak beren ideiak eta diskoak ekartzen dituzte, teknikariak ere berenak, nire lagunak ere parte hartzen dute, nik ere zoroen pare entzuten dut musika neuk bakarrik dakidalako zer behar dudan... Hala eta guztiz ere, ezinezkoa litzateke lan guztia pertsona bakar batek egitea; izan ere, inork sinesten ez badu ere, nire konpainiak denboraren kontra lan egiten du. Sorkuntza prozesu bakoitzak bizpahiru hilabete irauten du gehienez. Erlojuaren kontra joatea beldurgarria da. Nire dantzari taldea berdina da beti: 30 lagun bi sexuetakoak. Norbaitek alde egiten duenean bakarrik kontratatzen ditut berriak, itxaron zerranda luzea dugu, eta beste herrialde batzuetan ere egiten ditut probak. Zorionekoa naiz munduko talentu askok Tanztheater Wuppertalen lan egiteko interesa dutelako. Gure errepertorioa oso zabala da, eta batzuetan, norbaitek alde egiten duenean, pieza osoak aldatu behar izaten ditut, dantzari bakoitza ezinbesteko engranajea baita obra bakoitzean. Neurrira egindako jantzia bezala. Dena dela, beti da ona jende berria sartzea taldean, oxigenoa ekartzen duelako. Odol berria!

LINKA:

<https://www.youtube.com/watch?v=fR0NDmrQ79c>